

# BERRIGARA

zenbakia JARDUN Elkarteak, Bergara 1997, abenduak 19



## Gabon giroan

# OPEL



**TALLERES OLA**

Olabarren auzoa z/g.  
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47.  
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:  
**TAKOLO AUTOAK, S.L.**  
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa).  
Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK

# MASTERREKA 24

Gabonetan larunbat arratsaldeetan ere zabalik



Jantziak  
bitxiak  
eta... nahi beste opari

MASTERREKA 24, BERGARA TF. 76 13 61

## MULTIOPTICAS

### MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16  
Tel. 76 15 75  
BERGARA

J. Carlos Guerra, 1  
Tel. 79 29 95  
ARRASATE

J. M. Barandiaran Enp.  
Tel. 88 99 88  
ORDIZIA

### MULTIOPTICAS EIBAR

Bidebarrieta, 2  
Tel. 20 05 22  
EIBAR

### MULTIOPTICAS ERRETERIA

Pl. de La Esmeralería, 7  
Tel. 51 78 11  
ERRETERIA



J.P. : 15.150  
GABONETAKO PREZIO BEREZIA  
12.125



IBILTARIENTZAKO  
PODOMETROA

J.P. : 5.450  
GABONETAKO PREZIO BEREZIA  
3.575



J.P. : 14.900  
GABONETAKO  
PREZIO BEREZIA  
11.760

Uztegabeko opariak

Aukera ezin hobea



J.P. : 12.500  
GABONETAKO PREZIO BEREZIA  
8.900



J.P. : 13.500  
GABONETAKO PREZIO BEREZIA  
10.540



EXISTENTZIAK BUKATU ARTEKO PROMOTZIOA



KILLER  
LOOP



ZURE AMÉSETAKO  
KILLER LOOP-AR  
EROS EZAZU  
ETA ERAMAN ESKULARRU  
HAUEK OPARITZAT



%15eko  
D.T.O.A.  
EGUZKITARAKO  
BETAURREKOTAN

ERREGÉ  
BAT  
BEZALA  
GELDITU.  
OPARITU  
EGUZKIA.



GIORGIO ARMANI  
Sofisticated  
by John  
boller  
CARRERA  
EASSUN  
LOOK



INDO  
Christian Dior  
poco raborante  
STING  
NINA RICCI  
YESSENIA  
VOGART  
Ray-Ban



Zure  
"Ray-Ban"ekin  
kutzazina  
berezki bat  
oparitzat

## BERRIGARA

BERROKALDE JAUREGIA  
4570 Bergara  
76 03 97  
76 29 77

## Agintaratzaila:

AGINTARATZAILA

## Agintaratzaila:

Agintaratzaila

## Agintaratzaila:

Agintaratzaila

Agintaratzaila

## Agintaratzaila:

Agintaratzaila

## Agintaratzaila:

Agintaratzaila

## Agintaratzaila:

Agintaratzaila

## Agintaratzaila:

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

Agintaratzaila

## Z E B E R R I D A ?


## RIKARDO AZKARGORTA

## Beart elkarteko presidentea

- Gabonetan bergarar margolari eta eskultoreen ohiko erakusketa izango da...

- Horrela da, bai. Urteetan herriko artistek euren lanak erakutsi dituzte Gabonetako fetxak aprobetxatuz eta aurten ere erakusketa egiteko Kultur Zerbitzuaren gonbidapena jaso genuen. Gaur ostirala, arratsaldean, pintoreen erakusketa zabalduko da Kultur Etxean eta abenduaren 28ra arte zabalik izango da. Guztira herriko 30 margolariren lanak izango dira ikusgai, tartean Bergaratik kanpo diren hainbat margolarienak ere bai. Ondoren, abenduaren 30etik urtarriaren 11ra bitartean, eskultoreen txanda izango da.

- Udalari aurkeztuta-



ko txostenaren ondoren, zein erantzun jaso du Beartek?

- Udalari gure proiektuen berri eman genion; ikastaroak, lehiaketak edota erakuskeak antolatzeaz gain, liburutegi bat osatu eta bideoteka zerbitzua ere eskaintzeko asmoa daukagu. Udalaren erantzua zai gaudela. Ea Gabonetan zerbait aurreratzen dugun...

**“Gabonetan herriko pintore eta eskultoreen erakusketak izango dira Kultur Etxean”**

## I T U R R I O N E T I K

## Deskarga erreka bideratzeko La Parrako etxea botako da bihar

BERRIGARAK jakin ahal izan duenez, bihar zapatua, hilak 20, goizen goiz hasiko dira La Parrako etxea botatzeko lanak. Antzuolatik datorren Deskarga erreka Deba ibaiarekin bat egin duen tartean erreka bideratzeko botako da La Parrako etxea. Horrela, inguru horretan izan diren uholdeak saihestu nahi dira etorkizunean. Bergarako Udalak eta Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan sailburuak erreka bideratzeko hitzarmena sinatu zuten irailaren azkenetan. Aipatutako lanak egin ahal izateko San Migel kaleko 1, 3 eta 5 zenbakiak, La Parrako etxea eta San Antonioko ermita pixkanaka-pixkanaka botatzen ari dira.

E S A N  
D U T E

“Euskal Herriko bertso-txapelketako epaimahaia bederatz lagunek osatzen dugu eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako ordezkariak daude. Geure artean bilera asko egin ditugu, bai lehenago eta baita txapelketan zehar ere. Bilera horietan kriterioak eztabaidatzen ditugu, ariketak egin, kasu desberdinetan nola jokatu...

Puntuazioa oso bapatekoa da. Alde batetik, finkatuta dauden kriterioak erabiltzen dira. Bestetik alde subjektiboagoa dago. Emaiza talde lana da, bakoitzak bere puntuazioa ematen du eta azkenean kaleratzen dena denon emaitza da. Oraindik ez da formula hoberik bilatu. Norbaitek lan hori egin behar du eta elkarte bertsolari eta bertsozale guztiok modu egoki bat bilatzen ahaleginu behar dugu. Txapelketak alde onak eta txarrak ditu. Txapelketan parte hartu izan dut eta aberasgarria dela uste dut”

ARANTZAZU  
LOIDI

Kazetaria eta bertsolaria  
ARETXAGAZETA



Aldizkari honek Bergarako udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kulturaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kulturaren laguntza jaso du



### ALIEN RESURRECCION

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).



### 101 DALMATAS

Domeka: 11:30 (Matinala).

▼▼ **Virago** antzerki talde bergararrak *La dama del alba*, bere hirugarren antzezlan eskainiko du gaur, ostirala, 22:30etan Zabalotegin. Alejandro Casona (1903-1965) idazlearen lan hau taulartzeko 13 aktorek hartuko dute parte. Sarrerak 500 eta 300 pezetan (Gazte Txartela edo langabetu txartelarekin) salgai.



## Zinea

▼▼ **Ripley** tenientea (**Sigourney Weaver**) orain 200 urte hil zen, baina *Auriga* espazio untzian lanean ari den ikerlari talde batek bizitza emango dio berriz klonazioari esker, bere ADN *Ripley* berak akabatutako *alien* espeziearekin nahastuz. Espazio untzian istripu bat gertatu ondoren, 12 *alien* aske geratuko dira eta *Ripley Call* izeneko mekanikoarekin (**Winona Ryder**) elkartu beharko da...

▼▼ **Walt Disney** produktorak benetako aktoreekin errodatu nahi izan zuen marrazki bizidunetako klasikoetako bat. *Anita* eta *Roger* senar-emazteei (**Joely Richardson** eta **Jeff Daniels**) euren txakurkumeak lapurtuko dizkiote eta *Cruella De Vil* gaizkilea (**Glenn Close**) izango da susmagarri nagusia...

## Deiak

▼ **1975**ean jaiotakoen bazkaria hilaren 27an Zabala jatetxean. Izen-ematea (2.500 pezeta) Kutxako 0122161672 kontu korronte zenbakian hilaren 22a baino lehen.

▼ **1976**an jaiotakoen bazkaria hilaren 27an Antxonin. Izen-ematea Antxonin hilaren 25a baino lehen. Abenduaren 27an, 12:30etan Pol-Polen.

▼ **Komite Internazionalistak.** Nikaraguari buruzko diaporama martitzenean, hilak 23, 22:00etan Pol-Polen.

▼ **Orfeoia** 1969an Cuencan emandako kontzertuaren bideo emanaldia Pertxa elkartearen ostiralean, hilak 26, 18:00etan.

▼ **Rakel Arenazaren** margoak Nahikari tabernan.

## Ogia

▼ **Domeka 21:** Konde.

## FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 19:** Camacho.
- ▼ **Zapatua 20:** Puy.
- ▼ **Domeka 21:** Puy.
- ▼ **Astelehena 22:** Guallar.
- ▼ **Martitzena 23:** Estella.
- ▼ **Eguaztena 24:** Mozos.
- ▼ **Eguena 25:** Camacho.

## LONBIDE OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

## Zabutzia

### ARRAINDEGIA

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

# Gabonetako kontzertua

## Udazken Kulturaleko ekitaldi nagusienetakoa zapatuan

**Udazken** Kulturaleko ekitaldi nagusienetakoa den Gabonetako kontzertua izango da bihar, zapatua, 22:30etan Udal Pilotalekuan. Ohizkoa denez, Udal Musika Banda, Aritzeta Abesbatza, Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoa eta Bergarako Orfeoia izango dira bihar Frontoiko eskenatokian.

Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean, lehenbizi, Bandak Piotr Tchaikowski konpositorearen 1812 (Obertura nagusia) izenburuko lana eskainiko du. Jarraian, Aritzetako kideek hainbat kantu abestuko dituzte; Izaskun Labaien-ek zuzenduta, Gaur Akelarre Gorbeian (Luis de Aranburu) entzuteko aukera izango dugu eta, ondoren, Imanol Urzelai gaur egungo zuzendariaren eskutik, Jacinto Chiclana (Astor Piazzolla), Ierushalaim (Jose Iturria), Soon ah will be done (W.L. Dawson) eta, azkenik, Hator, hator (Jesus Guridi). Orkestra Sinfonikoaren txanda izango da gero eta Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzentzen duen taldeak Dimitri Shostakovich-en 5. Sinfoniako Finale izenburuko pieza joko du. Ondoren,



Frontoian izango den kontzertuan Udal Bandak, Aritzetak, Orkestak eta Orfeoia hartuko dute parte.

Orfeoia, David Azurza zuzendariaren eskutik, La verbena de la paloma (Breton), Euskal Gabon Suitea (T. Aragües) eta Pueri Concinite (Herbeck) joko ditu. Orfeoiarekin batera Maria Jesus Ugalde sopranoa, Iñigo Alberdi pianujolea eta Bergarako Musika Eskolako Hari Taldekoak arituko dira.

### Igor Printzea

Kontzertuari amaiera emateko talde guztiek el-

karrekin Alexander Borodin konpositorearen Igor Printzea (gera dantzak) eskainiko dute. Alfredo Gonzalez Chirlaqueren hitzetan, "lan honek momentu goxoak eta bortitzak tariekatzen ditu, oso lan inpaktantea da eta ez dago dudarik musika errusiarra dela. Anekdota modura, aurtengo Gabonetako kontzertuko musika instrumental guztia konpositore errusiarrena da. Igor Printzea orain dela 14 bat urteko Gabo-

netako kontzertuan ere eskaini zen, orduan nire aitaren zuzendaritzapean. Banda eta Orkestra batzea ez da oso ohizkoa eta, horrez gain, abesbatzetzat egokia den lan bat aukeratu beharra dago".

Gaur arratsaldean kontzertuaren entsaiu orokorra izango da Frontoian. Biharko emanaldirako sarrrerak 800 eta 500 pezetan (Gazte Txartela edo langabetu txartela aurkeztuz) salduko dira.

# Kizkur

**ILEAPAINDEGIA  
SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

## IBARGUREN PENTSUAK

BIONA pentsuen biltegia,  
BIOTER produktuak,  
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79

## Herriaren laguntza eta elkartasuna

Kaixo! Mikel Vicenteren lagunak gara. Mikel 21 urteko bergarar gazte bat da, eta zuotako askok jakingo duzuen bezala, urriaren 6an kotxe istripu latz bat jasan zuen Oñatitik lagun bat eta bi autoestopistekin zetorrela. Istripu honen ondorioz pertsona batek bizia galdu zuen, beste bat zauritua suertatu zen eta Mikel, bere hanketan zauri larriak jasateaz gain, buruan izan zituen lesioen ondorioz koma egoeran gelditu zen.

Bi hilabete inguru Gasteizko Santiago ospitalean igaro ondoren, bertako sendagileek beraien esku zegoen guztia egin zutela jakinarazi zieten familiartekoei, ospitale horretan gehiago egiteko posibilitaterik ez zegoela.

Osakidetzak ez du horrelako kasuetarako ospitale aproposik eta Mikel dagoen egoeran etxera eramateak, bere bizitza osorako oraingo egoera bejatatiboan gelditzea suposatuko luke. Horretaz gain horrelako gaixo bat etxean izan eta zaindu ahal izateko, etxeak baldintza minimo batzu izan behar ditu, baina zoritxarrez etxe arrunt gehienek ez dituzte baldintza hauek betetzen.

Egoera hau ikusirik, sendagile eta familiartekoei irtenbide bakar bat ikusi zuten, Mikel buruko lesioetan espezializaturik dagoen ospitale pribatu batetara eramatea, horrela, nahiz eta guztiz ez errekuperatu, bere bizitza-kalitatea hobetuko delakoan. Hauetako zentru bat, bere familiarentzat aukera bakarra, Arrasaten dagoen Aita Menni da.

Ospitale honetako tarifa hilabeteko milioi bat pezeta ingurukoa da, familia gutxik ordain dezaketen diru kantitatea, zoritxarrez Mikelen familia ez da salbuespena.

Ez dakigu zenbat denbora izango den beharrezkoa, ez dugu inongo garantiarik, baina Mikelek beste edozeinek bezala merezi duen aukera izan dezan gogor ekingo diogu lanari, berari gertatu zaion arren, gutako edonori edo gutuna irakurtzen ari zaren horri gerta dakigukeelako.

Mikelen lagunok Mikelek aukera hau merezi duela uste dugu, horregatik bere egoerak suposa ditzakeen gastuak ordaintzeko ekintza batzu antolatu behar ditugu, horretarako Bergarako herriaren laguntza eta elkartasuna eskatzen dugularik.

Laguntza ekonomikoa eman nahi duzuen guztiok, Bergarako edozein aurrezki kutxa edo banku bulegotara jo dezakezue zuen aportazioa emateko.

Zuen laguntza jasoko dugulakoan, eskerrik asko.

MIKELEN LAGUNAK

## Ale berezia

Datorren ostiralean, abenduak 26, ohiko Berrigararen orde, urteko azken ale berezia jasoko duzue. 60 orritan, amaitzean dagoen 1997 urteari errepa-soa egingo diogu. Urteko gertakari azpimarragarrienak, nabarmendu diren pertsonaiak, iritzi artikulua interesgarriak, elkarrizketak, datuak, e.a. aurkituko dituzue datorren asteko Berrigararen.

Ondoren, urtarillaren 9an berriz ikusiko dugu elkar. Urte berria sorpresaz betea etorriko zaigu, berehala igarriko duzue hori.

Bestalde, Berrigara Gida 98, telefonoak jasotzen dituen liburuxkoa, urtarillaren 9an banatuko dugu.

Bitartean, Gabon zoriontsuak eta urte berri ona izan ditzazuela.

## Tiira biraka



## UNAI AZKARATE

**Bedelkarreko harakinen zozketa**


Bedelkarreko harakinek astero zozketatzen dituzten bost kilo txuletak 0606 zenbakiaren jabearentzat izango dira oraingoan.

**Udal pilotalekuko taberna hartzeko eskaririk ez**

Frontoiko taberna hartzeko eskaririk ez da jaso eta hurrengo egunotan kaleratuko ditu Udalak berriz ere baldintza pleguak. Oraingoan, hilero 100.000 pezetako (gehi BEZ) errenta eskatuko da. Otsaila baino lehen zerbitzua adjudikatu nahi du Udalak.

**Industrialdeko urbanizazio lanak aste honetan hasi dira**

**Eguasten** eguerdian ez-ohiko plenoa egin zuten EAJ, EA eta PSE-EE alderdiek. Udaltzak bost gai eztabaidatu zituen eta, horien artean, Labegaraietako industrialdeko urbanizazio lanekin hasiteko proposamena izan zen garrantzitsuena. Urbanizazio lan horiek egiteko Amenabar enpresak 6 hilabeteko epea du eta obrek 186 miloi pezetako aurrekontua dute. Urbanizazio lanak bukatu ondoren, lantegiak eta bulegoak jartzeko pabiloiak eraikitzen hasiko dira.



Industrialdeko obrak hasteko hitzarmena sinatu zen eguenean.

Eguen goizean egin zen lanen inaugurazio ofiziala. Goizeko 11etan Labegaraietako industrialdea elkartea osatzen duten taldeek, hau da, SPRI-LUR (%51), Gipuzkoako Foru Aldundia (%24,30) eta Bergarako Udalak (%24,30) "acta de replante" delakoa sinatu zuten. Ondoren, Labegaraietako industrialdearen lehenengo harria jarri zuten elkarrean ordezkariak.

**Lan konbenioa**

Eguastenekoko Plenoan aztertu ziren beste gai batzuekin jarraituz, Udalak datozen 3 urteetarako udal langileekin izango

duen lan hitzarmena onartu zuten udal gobernu osatzen duten taldeek. Puntu honetan PSE-EEko ordezkariak konbenioaren seigarren punturarekin ados ez dagoela azaldu zuen. Puntu horretan intsumisio auzietan dauden langileek administrazio publikoetan euren zerbitzua betetzeko aukera izan dezatela adierazten da.

**Angiozarko pilotalekua**

Bestalde, Angiozarko frontoiko estaltze eta egokiera lanen proiektu teknikoa onartu zuten.

Horretarako 63.712.500 PTako aurrekontua onartu zen.

Bestalde, San Juanen dagoen 10. sektoretik 11. sektorerara ura eramateko 6.550.194 PTako diru kopurua onartu zuten. Era berean, San Migel kaleko 11 B atarian dagoen biltegia 1.800.000 PTaren truke erosteko erabakia hartu zen. Eraikuntza hori arau subsidiarioetan hartutako neurriak aurrera eramateko erosi da. Plenoa eguerdiko 12:30etan izan zen eta Herri Batasunako 7 zinegotziak ez ziren plenoan izan ordu horretan plenoetara ezin direla joan behin eta berriz adierazi baitute.

**HILDAKOAK**

- Mariano Begiristain Aranburu**  
Abenduak 11, 66 urte.
- Damaso Santos Arroio**  
Abenduak 11, 50 urte.
- Maria Unamuno Artetxe**  
Abenduak 12, 87 urte.
- Jose Angel Bordazar Urzu**  
Abenduak 13, 81 urte.
- Jose Luis Garai Larrañaga**  
Abenduak 16, 96 urte.

**JAIOTAKOAK**

- Uxue Murgiondo Diaz**  
Abenduak 4.
- Irati Elortza Azkarate**  
Abenduak 8.
- Ibon Aguado Arrieta**  
Abenduak 11.
- Paulo Garitano Laka**  
Abenduak 13.

**LASAGABASTER**

**ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.**

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE TI. 79 27 27 / 79 13 55







# Aranzadi eta Mariaren Lagundiari laguntza gutxiago emango die Udalak

## Garbitasun eta atezain zerbitzuak ez ditu ordainduko

Udaleko Gobernu Batzordeak Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastolei garbitasun eta kontserjearen zerbitzua ez ematea erabaki du datorren urtetik aurrera, ikastetxe pribatuak direla argudiatuz.

Erabaki horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri dezakete bi eskoletako arduradunek. Bi ikastolen arduradunak ez daude ados Udalak hartutako erabakiarekin eta Iñazio Arregi Aranzadiko zuzendariak eta Manoli Urria Mariaren Lagundiko Lehen Hezkuntzako arduradunak adierazi digutenez: *"bi ikastetxeak zentru kontzertatuak dira eta, ondorioz, legearen aurrean ikastetxe publikoek dituzten eskubide eta betebeharrak berberak ditugu. Erabaki horrekin Bergarako hainbat haur eta guraso diskriminatuta daude eta Udalaren partetik guztiontzat tra-*

*tu berbera eskatzen dugu, diskriminaziorik gabe".*

Eskolako gurasoen artean erabakiaren aurkako sinadurak biltzen hasi dira bi ikastoletan. Gaur egun 2 urtetik 12 urtera bitarteko haurren %80 bi ikastoletan dago matrikulatuta eta gainontzeko %20 San Martin de Agirre ikastetxe publikoan. Victoriano Gallastegi alkatea adierazi digunez: *"datorren urtetik aurrera zerbitzu horiek ez ditu Udalak eskeiniko; baina zerbitzu horiek finantziazteko beste laguntza moduren bat ari gara aztertzen".*

Zerbitzu horientatik Udalak 8 milioi pezeta ordaintzen ditu; bestalde, langileei dagokienez, Martinez de Iralako atezaina da Udaleko langile fijo bakarra eta datorren urtetik aurrera Agorrosingo igerilekuan egingo du lan. Gainontzeko langileak denbora baterakoak dira.

## Ur zikinekin arazoak Kruz Gallastegi

Joan zen astelehenetik martitzenera bitarteko gauean goizeko 3etatik 5etara Kruz Gallastegi kaleko 3. eta 5. atarrietako biztanleek etxetik irten egin behar izan zuten etxe horietan usain txarra baitzegoen.

Hasiera batean gas ihesak eragindako usaina zela uste izan zuten eta ertzainak eta suhiltzaileak bertaratu ziren, baina, azkenean, etxe horien garajeetako estolderietan dauden arazoak direla eta, ur zikinek eragin zuten usain txarra. Victoriano Gallastegi alkatea euren goeraz arduratu eta ordu txiki horietan eurekin batera egon izana eskertu nahi izan du etxe horietako bizilagun batek Berrigararen bitartez.

## Senideak-en manifestazio isila

Presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzeko Senideak-ek egun hauetan Euskal Herrian zehar egin duen martxa zapatu honetan amaituko da. Hori dela eta, manifestazio isila izango da zapatu honetan San Martin plazan eguerdiko ordu batean. Bergarako Senideak-ek dei egiten die herritarrei manifestazioan parte hartzeko.

## San Martinen estanparen bideoa Musika Eskolan

San Martinen estanparen bideoa salgai izango da datorren astelehenetik aurrera Musika Eskolan. Orain arte bideoa herriko hainbat dendatan egon da salgai, baina hemendik aurrera eskuratu nahi duenak Musika Eskolara joan beharko du.



Atezain eta garbitasun zerbitzuengatik 8 milioi pezeta ematen ditu Udalak.

**IZADI** PILI GISASOLA

Zurradero, 2  
behea.  
☎ 76 58 83

**Santiveri**

Osasun eta Dietetikan  
espezializatutako zentrua

**SUBIJATI**

Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

**AGOITZ**

Tapizdenda

San Lorenzo, 25 BERGARA  
Telefonoa: 939 84 57 47

## Zapatua 20

**Erakusketa.** Bergarako pintoreen koadroak Kultur Etxean abenduaren 28ra arte.

**Margo erakusketa:** Fernando Arenaza, Luis Laskurain, Mikel Araiztegi eta Bingen De Pedro margolari bergararren erakusketa Jacako Libreria La Trastienda (Avenida Regimiento de Galicia, 2) galerian. Urtarrilaren 20ra arte.

**Erakusketa.** Juan Jose Altuna Akizuren erakusketa Bilboko Berta Belaza galerian, urtarrilaren 8ra arte.



M. Araiztegi egindako irudia.

## Domeka 21

**Ogia:** Konde.

## Astlehena 22

**San Joxepe** elkarteak antolatuta, arratsaldeko 6etan txistorrada eta dantza jubilatuen elkarteak.

**Diapositiba emanaldia:** "Neguko solstizioa Euskal Herrian", Patxi Sanz-en eskutik, 19:30etan Antzuolako Zinetokian.

## Martitzena 23

**San Joxepe** elkarteok gaisorik dauden bazkideei bisita egingo diete. Eguasten

eguerdian Gabon kanten kontzertua eskainiko du Jubilatuen abesbatzak.

**Komite Internazionalistak.** Nikaraguari buruzko diaporama 22:00etan Pol-Polen. Martitzenean gaisorik dauden bazkideei bisita egingo diete eta eguasten eguerdian Gabon kanten kontzertua eskainiko du Jubilatuen abesbatzak.

## Eguastena 24

**Amnistiaren aldeko Olentzeroa.** Parte hartzen interesatuei dei egiten zaie goizeko 8etan Labegarrietako Zabala tabernan agertzeko.

**Elosuko auzotarrak** ere baserri baserri ibiliko dira kantuan. Goizeko 9etan Elosuko frontoian.

**Jubilatu abesbatzaren** emanaldia eguerdian San Joxepe elkarteak.

**Jaialdia** Jam aretoan gauerditik aurrera. Angel Ezkurra, Mikel Berasategi eta Fernando Etxabarrak diskoak *pintxatu* ondoren, euskaraoke saioa izango da eta jarraian La Parranda bergarar taldearekin jaialdia.

**Zinea:** "George de la jungla", 17:00.

## Eguena 25

**Zinea:** "George de la jungla", 17:00, 19:30, 22:15.

## Eguakitza 26

**Futbola.** Gazte mailako Gabonetako VII. Futbol txapelketa. Real Sociedad-Bergara, 17:00etan Ipintzan.

**Pailazoak.** "Bixkor, Koxkor eta enpresari jauna" Antzuolako Gaztetxokoa, 16:30etan. Ondoren txokolatada eta Olentzerori idatzitako gutunen sari banaketa.

**Bideo emanaldia.** 1969an Bergarako Orfeoia Cuencan emandako kontzertuko irudiak Pertxa elkarteak, 18:00etan.

**Kontzertua.** Xabier Montoia, Chucho eta

Zein taldeekin Jam aretoan, Udazken Kulturaleko programazioaren barruan. Sarrerak 500 pezetan.

**Tute txapelketa** Jubilatuetan.

**Zinea:** "La teniente O'Neil", 22:30.



Chucho Saizen taldea.

## Zapatua 27

**Futbitoa.** Gabonetako Areto Futboleko III. Txapelketa.

Bergara-Zumarraga (neskak), 16:30etan. Ondoren, Gabonetako saskia zozketatuko da eta, jarraian, gizonezkoen txapelketa jokatu da hiru talderen artean. Bergarako Lagunak taldeak eta lehen maila territorialeko bi taldek hartuko dute parte.

**Futbola.** Gazte mailako Gabonetako VII. Futbol txapelketa Agorrosinen. Eibar Urko-Aloña Mendi, 17:00etan Ipintzan.

**Bizar Zuri** arratsaldeko 7etatik aurrera herriko kaleetan.

**Musika Eskolako** taldeen kontzertua 20:00etan Antzuolako Zinetokian.

**Zinea:** "George de la jungla", 17:00, 19:30. "La teniente O'Neil", 22:30.

## Domeka 28

**Ogia:** Mizpildi.

**Futbola.** Gazte mailako Gabonetako VII. Futbol txapelketaren finala 16:00etan Ipintzan.

**Oskorri** eta **Kukubiltxoren Marijane kantazana** ikuskizuna Udal Pilotalekuan, 17:00etan. Sarrerak 500 pezetan salgai, aurrez Kultur Etxean eta Frontoiko tabernan.

**EGUREN**

**GESTORIA**

Maria Pilar Eguren Díez

Kolegiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta Plaza, 3 behea

☎ 76 21 65 / 76 24 45

**AZPEITXI**

Aranerreka, 13 behea ☎ 76 55 00

**Jatetxea**

**Margoak.** Bergarako margolarien erakusketa ikusteko azken eguna, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

**Zinea:** "George de la jungla", 17:00. "La teniente O'Neil", 19:30, 22:15.

## Astelehena 29

**Jazz dantza ikastaroa** abenduaren 29tik urtarrilaren 5era, 10:30etatik 12:00etara Aranzadi Ikastolako gimnasioan, Poligonoan. Irakaslea Maite Otaola izango da eta bi maila egongo dira, 16 urtetik beherakoentzat eta hortik gorakoentzat. Argibideak Udaleko Kirol Zerbitzuan, 77 91 67 telefono zenbakian.

**Ur jolasak** Agorrosingo igerilekuan, 10:30etatik 13:00era. 14 urtetik beherakoentzat. 100 pezeta Kirol Zerbitzuko bazkideentzat eta 200 pezeta gainontzekoentzat. Derrigorrezkoa da txanoa eramatea.

**Gabonetako parkea** 14 urtetik beherakoentzat Kiroldegian, 15:30etatik 18:30etara. Bertan era guztietako jolasak eta hainbat tailer izango dira Xipizaroren eskutik. Bost urtetik beherako haurrentzat joku bereziak izango dira. Derrigorrezkoa da kirol oinetakoak eramatea. Eguneroko sarrera: 150 pezeta. Lau egunetako bonoa: 500 pezeta.

**Mus txapelketa** (8 erregetara) Jubilatuetan.

**Erakusketa.** Nikaraguari buruzko erakusketa Nahikari tabernan, urtarrilaren 11ra arte. Komite Internazionalistak taldeak antolatuta.

**Zinea:** "La teniente O'Neil", 19:30.



## Martitzena 30

**Ur jolasak** igerilekuan, 10:30etatik 13:00era.

**Gabonetako parkea** Kiroldegian, 15:30etatik 18:30etara.

**Futbolin txapelketa** 18:00etan Ollagorria tabernan, LAMek antolatuta. Urtarrilaren 10erako flipper (petaka) txapelketa iragarri da, 17:00etan Grand Slam Jolastokian.

**Erakusketa.** Bergarako eskultoreen lanak ikusgai Kultur Etxean, urtarrilaren 11ra arte.

**Diapositiba emanaldia:** "Euskal Herriko mitoak atzo eta gaur", Patxi Saiz-en eskutik, 19:30etan Antzuolako Zinetokian.

## Eguastena 31

**Mendi irteera** Aizkorriara, Pol-Pol Mendizale Taldeak antolatuta. Izen-ematea aurreko egunetan Pol-Poleko bulegoan, 19:00etatik 20:30etara.

**Sari banaketa** Jubilatuetan.

**Zinea:** "7 años en el Tibet", 17:00.



## Urtarrilaren lehena

**Zinea:** "7 años en el Tibet", 17:00, 19:30, 22:15.

## Eguakitza 2

**Gabonetako parkea** Labegaraietako Kiroldegian, 15:30etatik 18:30etara.

**Zinea:** "7 años en el Tibet", 22:30.

## Zapatua 3

**Gabonetako parkea** Kiroldegian, 15:30etatik 18:30etara. Eguraldi ona baldin bada, arratsaldeko 6etan txokolatea banatuko da.

**Kantaldia.** Patxi Saiz eta bere taldea eta Antzuolako abesbatzaren emanaldia 18:30etan Antzuolako zinetokian.

**Zinea:** "7 años en el Tibet", 17:00, 19:30, 22:15.

## Domeka 4

**Ogia:** Ogizun.

**Zinea:** "7 años en el Tibet", 17:00, 19:30, 22:15.

## Astelehena 5

**Erregeen kabalgata** Elosun, 18:00etatik aurrera.

**Aurkezpena.** Antzuolako ipuin mitologiko baten aurkezpena Antzuolako Udaletxeko Pleno aretoan 18:00etan.

**Erregeen kabalgata** herriko kaleetan. Kultur Etxetik 19:30etan abiatu ondoren, herri barrutik ibilbidea beteko dute urrunetik etorritako erregeek.

**Zinea:** "Perdita Durango", 17:00, 19:30.



## Martitzena 6

**Ogia:** Konde.

**Zinea:** "Perdita Durango", 17:00, 19:30, 22:15.

**GURIDI** altzariak

**Era guztietako altzariak**

Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 02



**KORTA-ZAR**

**Txokolategia**

**Pintxo eta ogibartekoen espezialitatea**

**OSTIRALETAN GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK**

Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62

# Xabier Azkoitia

## Santa Marinako parroko gaztea

**Xabier Azkoitia 31 urteko urretxuarra Santa Marina eta Elosuko parroko berria dugu joan zen irailetik. Bergarara etorri aurretik zazpi urte eman zituen apaiz lanetan Legorretan eta Goierrin. Orain, ilusioz beterik ekin dio gure artean hasitako etapa berriari.**

**Irailean etorri zinen Bergarara. Zein da balorazioa?**

- Oraindik *aterizatzen* nagoela esan daiteke. Egoera berezia izan da bai Santa Marinan eta bai Sierbetan ere obretan murgildurik egon garela. Parrokiko komisiotako jendeak lasaitasuna eman dit hasieratik. Zerbitzu arloan, hau da, Caritas munduan, gaixoen munduan edota espetxeratuaren munduan, parrokiak ondo antolatuta dago. Behartsuenganako esturkturak eratuta daude, baina beste arlo batzuetan badira gauzak egiteko. Orain, adibidez, batasun pastoral prozesu baten barruan sartuko gara; parrokiak bakoitzean orainarteko zerbitzuak egongo diren arren, indepen-



Xabier Azkoitia urretxuarra irailean heldu zen Bergarara.

diente izateari utziko diogu neurri handi batean eta gauza asko elkarrekin egingo ditugu. Bost urtera begira egindako plana maiz aldera bukatuta izatea espero dugu.

**- Hasieratik bazter-tutakoengandik gertu egoteko asmoa azaldu zenuen...**

- Egin berri den hautaketaren ondoren, Fidel Izagirre da Bergarako ar-

zipreste berria eta niri espetxeratuaren batzordean lan egitea tokatu zait. Nahiko arazo daude langabetu, drogazale edota espetxeratuaren inguruan eta beste hainbat arlotara zoritxarrez ez gara iristen. Mundu horietan egotera heldu behar gara, beste inongo helbururik gabe, baztertuta dauden horiek jakin dezatela sufrimendu hori guretzat ez dela azkenengo ilaran dagoen zerbait. Beraiangandik gertu egon beharra daukagu, bakarrik sentitu ez daitezen.

**- Herriarren aldetik zelako harrera jaso duzu?**

- Oso ona. Ni natorren giroa oso ezberdina da; giro justuagoa, hitzak neurtuagoak etortzen dira Goierri aldean. Hemen jendea irekiagoa da eta alde horretatik oso pozik nago. Elosun ere etxean bezala hartu naute eta irekitze ahalegin hori bihotzez eskertzen diet guztiei.

**- Bat baino gehiago harrituta geratuta zen hain apaiz gaztea ikusita...**

- Batzuek arazoak dauzkate bai, aldarean ikusi ondoren *buzorik*

**ileapaindegia**

eder gela

**disdira**

Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

**Carmen Garate**

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.

Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

## “Gabonik gabeko etxe asko izango dira eta jende horrekiko zabalik egon behar gara, anaitasuna eta solidaritatea eskainiz”

gabe ikustean... Parrokia-ko adineko jendearen partetik, adibidez, jarrera paternalista bat nabaritzen dut. Bestalde, anekdotaren bat ere gertatu zait nire adinagatik; zenbaitetan hildakoren baten etxera joan eta norbaitek ea apaiza etorriko den galdetu izan dit. Nik baietz, etorriko dela erantzun. Traje luzea jantzita ez naiz joaten eta...

### - Gazte jendea hurbiltzen da parrokiara?

- Nahiz eta kopuru txikian, Goierrin baino gehiago. Kopurua baino gazteok aukera egiten dugunean aukera heldua egiteak, horrek kezkatzen nau benetan. Parrokiak, bila dabilen edozeini bilaketa plan bat eskaini diezaioke eta horretan irekita egon behar dugu, gazteei bilaketa prozesu bat eskaintzeko.

### - Gabonen atarian, zein mezu zabaldu nahiko zenuke?

- Lehenengoa ez daitezela izan Gabon pribatuak. Nik gogoan dut txikitan Gabonek zuten giro komunitarioa eta, zoritxarrez, gaur egun galdu egin da hori. Erljio kutsua galdu duten? Erljio kutsua ez, baina kristau kutsua bai, kontsumoaren erlijioa sartu delako erdian. Ebanjelioan jasotzen denez, Jesus hiritik kanpo jaio behar izan zen hiritik kanpo bota zutelako, ez zioten hiri barruan jaiozten utzi eta hiltzera-

koan ere hiritik kanpo bota zuten. Irekirik egon behar gara Gabonik gabeko beste guzti horiei, ez ahaztu herriaren elkarre honetan Gabonik gabeko etxe asko izango direla; horrek ez du esan nahi Gabonik ez dugula ospatuko, baina jende horrekiko zabalik egon behar gara, kristau ikuspegitik anaitasuna eta gizarte aldetik solidaritatea eskainiz.

### - Bestalde, zein iritzi daukazu Setien gotzaiaren deklarazioek sortzen duten polemikari buruz?


- Gotzaiak idazten duenean ez du bakarrik idazten, bere atzetik elizbarrutia dago. Askotan, zenbaiten partetik, aurreiritzi batzuk daude eta berdin du gotzaiak zer esaten duen, eskutitza irakurri gabe kritika aurretik egin dagoelako. Eta Setienek ildo bat jarraitzen du, ez du gauza berririk esaten ETak zein Estatuak biolentzia erabiltzeari utzi behar diotela esaten duenean, hemengo gatazkaren egoera iceberg punta baino ez dela dioenean... Gotzaiareferente bihurtzen da, ados ala kontra egon, nortasun etiko bat duelaiko. Kriterio nagusietan

ados nago berarekin eta bizi dugun egoerari buruzko erreflesioa egiteko astia hartzen duten gutxietako bat da.

### - Konponbiderik ikusten diozu Euskal Herriko egoerari?

- Gauza konplexuek ez dute irtenbide errezik. Konponbidea urrutira ikusten dut; konponbidea etorriko da denok ados jartzen garenean kriterio etiko minimo batzuk errespetatu egin behar ditugula. Gure gizarteak kriterio etiko horiek jarra politiko batean gauzatu dit. Egiak aske egingo gaituela esaten da. Askatasunean biziko

bagara, ez dugu bakarrik legedia aplikatu nahi izango, justizia ere gure esku izatea nahi izango dugu. Baina barkamenik gabeko justizia ez da justizia. Urrats horiek ematen badira, pakea posible izango da. Zerbait egin baino lehen gure herria dagoenetan maite behar dugu, duen biolentziarekin, gatazkarekin eta bere gauza itsusi guztiekin. Eta instituzio bakoitzak bere lana egin beharko du. Elizaren barruan gatazkarik gabe hitzegiteko eta konpontzeko kapaz baldin bagara, gizartearen zati bat garenez, on egin dezakegu.



Xabier Azkoitia 1990eko uztailaren 7an ordenatu zen apaiz.

Kafe - Taberna • BERGARA • Pentsioa

*Pintxoak, kopak, boiloak...*

Egunero goizeko 7etatik 10ak arte zabalik  
Bidekurutzeta, 34 Tf. 76 47 23



**BERGARA**  
**MARMOLERIA**

PEDRO SALEGI OSA

*Sukalde eta bainu enzimerak*

Urarte, 8 BERGARA

☎ 76 11 99 / 76 14 47. Faxes: 76 04 77

# Zabalik dago Bergarako Super BM

## 700 metro karratuko supermerkatua Oxirondo azokan

Eguastenean zabaldu zituen atek Oxirondo udal azokako beheko solairuan jarri den Super BM supermerkatuak.

Salmentarako 700 metro karratu dituen superrak 10 sail ditu: harategia, urdaitegia, fruteria, arraindegia, izoztuen saila, janarien saila, lurrindegia, usaindegia, okindegia eta edarien saila.

Bestalde, erosketak egitera bertara joan barik, eskutatukoa etxera eramateko zerbitzua ere eskaintzen du Super BMk.

### ZERBITZUAREN KALITATEA

Super BM taldeko supermerkatu guztien adierazgarri nagusia bezeroei eskaintzen dieten zerbitzuen

kalitatea da, hiriguneen erdialdean dauden establezimenduetan erostea erosoago eta azkarrago egiten baita.

Super BMko dende dekorazio alaia eta bizia dute, bezeroak ingurune atsegina merezi duelako.

Bestalde, Super BMk sustraiak ditu herrian; bertako kalitaterik oneneko produktuak bultzatzen dira.

### GARANTIAKO PRODUKTUAK

Super BMko elikagai, edari, drogeria e.a. alorreko produktuak merkatuan arrakastarik haundiena duten marketakoak dira. Kalitate kontrastatua daukaten eta erabat ezagunak diren

produktuak dira. Super BMko bezeroak erosketak egitera bertara doazenean garantiarik onena eskaintzen dieten produktuak erosten dituzte, konfidantza osoko produktuak.

Gainera, IFA markako produktuak ere badaude Super BMn, hau da, bezeroak prezio merkeagoan eros ditzan fabrikatzaile onenetakoek abalaturako produktuak.

### PRODUKTU BEREZIAK



Super BMk produktu aukera handia eskaintzen du prezio ezin hobean. Super BMk bezeroarentzan bereizten du janari, edari eta drogeriako aukerarik konpletuena. Gainera bi baldintza betetzen dituzte: prezio baxua eta Super

BMk exijitzen duen kalitatea edukitzea. Aukeraturakoa produktu horiek, garantia osoa eman eta oso prezio ekonomikoa eskaintzen duten fabrikatzaileenak dira.

### BERE JENDEAREKIN KONPROMEZUA

Super BMk bere historian zehar, kultur, gizarte eta kirol ekintzak aurrera eramaten lagundu izan du. Laguntza horren bitartez, bertako elkarte eta pertsonak hainbat ekintza aurrera eraman ahal izan dute. Besteak beste, honako hauek babestu ditu Super BMk: Lazkao Txikiri omenaldia, Manaslu eta Cho-Oyu-Lotshe 96 espedizioak, Miguel Indurain klasikoa, Korrika...

**Super merkatu berriak 10 sail ditu: harategia, urdaitegia, fruteria, arraindegia, izoztuen saila, janarien saila, lurrindegia, usaindegia, okindegia eta edarien saila.**



# kontuola...

Antzuolako hamabostekaria. 8 zenbakia, 1997-12-19

## Danok Bat elkarteak lokal bila

1960an Don Zesareoren eta orduko gazteen laguntzaz zabaldu zen

Orain dela 37 urte zabaldu zen Danok Bat. Herrian emakumeak sartu zitezkeen elkarte bakarra zen garai haietan eta gaur egun 270 bazkide ditu. Urte guzti hauetan Tellerianeko etxean egon den elkartekoek joan zen domekan beste leku batera joan edo atea itxi behar dituzten erabakitze bilerak izan zuten; hala ere, leku eskaintza bat baino gehiago izan dutenez beste bilerak bat egitekotan dira bazkide guztien artean lekuri proposena topatzeko.



Betiko lokala laga egin beharko dute bazkideek.

**Z**esareo Gabarainek orduko gazte eta helduen laguntzarekin zabaldu zuen Danok Bat elkarteak berea egin du, Tellerianeko etxean behintzat. Horrela adierazi digu gaur egun elkarteko lehendakaria den Eduardo Juradok. Bere esanetan, "udalak orain dela gutxi estudio bat egin du, eraikuntzaren egoera zein den zehazteko eta, dirudieraz, oso hondatuta dago".

Lokal eskaintzak lau dira dagoeneko: Lazareto etxea (DYA), Kalebarrenen egin berri diren etxeetako beheak eta Kontxaneko denda egon zeneko etxea. Oraintsu, gainera, Isidoraneko bebarria saltzeko dagoela jakin dute.

Elkarteko bazkideek bazekiten noizbait utzi beharko zutela Tellerianeko etxea; hala ere, ez zuten hori helduko zen eguna ikusten. "Ondarreko etxeak egin aurretik, hau guztia botako zutela bagenekien; baina... gure nahia da beste lokal batera joatea; gazteendako elkarte aproposa izaten jarraitzea nahiko genuke, bestela Gaztetxea baino ez baitaude".

### Emakumeentzako eta gazteentzako elkarteak

1960ko Santa Zezilia egunean zabaldu zuten Danok Bat elkarteak. Don Zesareo herrian egon zenean, eguraldi txarra zegoenean emakumeek eta gazteek ez zutela non egon, eta kezka horrek eraginda, elkarte bat sortzeko ahalaginetan hasi zen. Agustin Telleriarekin akordio batera iritsi eta oraingo elkarteen bigarren pisua zabaldu zuten;

1961ean, berriz, taberna jarri zioten. Orduan elkarteko juntan aritu zirenek diotenez, "geuk konpondu genuen lokala; margotu egin genuen, eta diru barik telebista bat ekarri genuen; herrian zegoen bakarrenetakoa zen eta antzuolar asko egin zen bazkide; 10 PTA sartzeagatik eta 35 giltzagatik".

Emakumeak sar zitezkeen lehenengo elkarteak izan zen eta saskibaloi eta atletismo ekipoak ere izan zituen; sariak oraindik bitrinan daude.

Gazteendako elkarte apropos bat izaten jarraitzea nahiko genuke

**Olentzeroren sariak eta pailazoak**

Abenduaren 26an, eguakitzean, 16:30etan hasita hainbat ekitaldi egingo dira Gaztetxokoan. Hasteko "Bixkor, Koxkor eta Enpresari jauna" pailazoak izango dira eta ondoren Olentzeroren karten sarietako 1. eta 2. mailako sariak banatuko dituzte. Sarien ostean gaztetxoko txokolate beroa banatuko dute eta adierazi digutenez, "oparixoren bat ere banatuko dugu umeen artean". Gaztetxokoa, 26tik urte amaiera arte egunero egongo da zabalik, urtarrilean, berriz, 1etik 6ra itxita egongo da.

**Gazinema**

Gaur eguakitzatza, abenduak 19, "La Roca" filmea eskainiko du Gazinemak 22:00etan. Domekan, abenduak 21, "101 Dalmatas" 16:30etan. "Space Jam" izango da abenduaren 26an, 22:00etan eta domekan, abenduak 28, "La dama y el vagabundo" eskainiko dute. Datorren urteko lehenengo filmeak ere jaso nahi izan ditugu zuen jakinmina asetzeko. Urtarrilaren 2an, 22:00etan, "Ramson" edo *erreskatea*; urtarrilaren 4an, 16:30etan "Pinocho, la leyenda".

**Gaztetxean larru gorritan**

Bergarako Jam aretoan, jostunen eguna ospatzeko, abenduaren 12an antolatu zuten strip-tease saioaren arrakasta ikusita, Gaztetxekoek antzerako zerbait egitea pentsatu dute. "Datorren asteko zapatuak, gauerdarako, striptisa antolatu dugu". Ordu horretan, gaueko 12etan, itzaliko dira Gaztetxeko argiak eta orduan hasiko da showa. Ikusgarria behintzat izango da, beraz, inoiz horrelakorik ikusi ez dutenek, aukera ederra daukate datorren asteko zapatuan. Aukerak merezi du!

# Binakako pilota txapelketaren finala

Bihar bertan, abenduak 20, jokatuko dira herriko pilota txapelketaren azken partiduak. Finalean Juan Migel Pagaldai eta Jose Mari Galeano, aurreko urteko irabazleak, arituko dira Jose Mari Mendizabal eta Jose Ramon Jauregiren aurka. 17:30etan hasiko da erronka, baina aurretik, eta Valentin Zabalok esan digunez, "mutikoez jokatu ditzute partidu batzuk, giroa berotzeko". Lehenengoa Iñaki Agirrek eta Aitor Mendizabalek jokatu dute Xabin Muruamendiaren aurka, eta ondoren Iñaki Agirrek eta Mikel Idiakenezek, Andoitz Peña eta Endika Iturberen aurka.

Hasiera batean, txapelketako 3. eta 4. postuak ere egun horretan jokatuko ziren, baina "batzuk eskuak eta beste batzuk hankak gaizki dauzkatela eta, ez dira bi postu horiek jokatuko" esan digu Valentinek.

**Euskal ohituren inguruko diapositibak**

Patxi Saizek abenduan bi diapositiba saio eskainiko ditu zine aretoan. Neguko soltizioa Euskal Herrian abenduaren 22an, eta Euskal Herriko mitoak abenduaren 30ean. Bi saioak 19:30etan izango dira.



**Patxi Saiz Antzuolan**

Urtarrilaren 3an, zapatuan, 18:30etan kontzertu berezia izango da Antzuolan. Patxi Saizek bere azken diskoa aurkeztuko digu. Berarekin jardungo dute diskoan parte hartu duten Xabier Agirre eta Alaitz Zabalo antzuolarrak eta Eñrike Txurrukak eta Arantzazu Saizek. Idolazek antolatutako kontzertuan Patxiaren taldeaz gain, Imuntzo trikitilaria eta Antzuolako abesbatza arituko dira. Fernando Letek adierazi digunez, "herriko abesbatzak kantu batzuk estreinatuko ditu".

**Aureli Cot Velasco**  
*Illepaindegia*  
*Cot*  
*Edertze aretoa*  
**Gabon zoriontsuak eta urte berri on!**  
 Errekalde, 2 ANTZUOLA  
 Tf. 78 71 37

**ANTZUOLA**  
 Apainketak eta isolamenduak  
 Pladurezko dibisioak  
 Kalegoi, 21 ANTZUOLA  
 Tf. 72 30 05  
 Biletgia 78 70 40

**LEKU-BERRI MERENDEROA**  
**Janariak eta edariak**  
 Tf. 76 60 94



# Arrolarekin Arrolara

**Antzuolarron  
Independentzia Eguna**

Urtarrilaren 10ean ospatuko da, azkenean, "Antzuolarron Independentzia Eguna" Gaztetxeak, Kalebarrengo Jai Batzordeak eta Idolazek antolatuta. Txistularien kalejirarekin hasiko da jaieguna, eta ondoren herri-poteoa, txaranga eta herri bazkaria izango dira. Eguerdiko ordu biak eta erdietan, herri-bazkaria egingo da pilotalekuan. Jarriko diren berogailuetaz gain, bertsolariak, trikitilariak eta dantzariak egongo dira giroa gehiago berotzeko.

Bazkal ostean partehartzaileek kantuan egiteko letrak banatuko dituzte antolatzaileek.



Arrola gainera igotzen dira Arrolakoak urte hasieran.

1997ko azkenengo mendi irteera egingo du Arrolak Aizkorrira aurtengo azkenengo egunean. Urbia gainera gailurrera igotzeko izen-ematea datorren astelehenean, abenduaren 29an, izango da 19:00etatik aurrera Arrolako lokalean. Ohitura bihurtu den irteera honekin amaitzen dute urtea, baina berehala emango diote hasiera hurrengoari. Urta-

rrilaren batean, Arrola gainera igoko dira, eta salda beroa eta txistorra jateko aukera izango dute bertan. Irteera 09:00etan izango da herriko plazan.


Bestalde, urtarrilaren 4an, domekan, Anoetara joango dira Arrolakoak herriko gazteekin. Goizean Oriotik Igeldora oinez, eta arratsaldean Errealak Betisekin duen partidura joango dira.

## Zuzenketa

Aurreko Kontuolan esan genuen hiri gutuna Mila Eizmendik, Eusko Jaurlaritzako teknikariak, euskaratu zuela, baina argitu beharra dugulan hau bere kabuz egin duela eta ez teknikari mailan.

## GURE ARTIAN

## Gabonak gogoz ala ohituragatik ospatzen dituzu?



**Jose  
Losada**

**F**artsa bat dira eta ez ditut zelebratzen. Dirua alferrik botatzen da, kontsumismo hutsa dira. Gainera, jende guztiak dena barkatzen du eta hori engainu bat da.



**Miren  
Zubillaga**

**B**ai, ospatzen ditudu baiña tradiziño batekin betetzen dot. Gaiñera etxat gustatzen zelebratzia, tristuria emoten doste, deprimidu egitten naiz eta ez takit zergaittik.



**Kontxi  
Mendizabal**

**T**xiki-txikittatik holaxe ohitu galako zelebratzen ditudugu, tradiziño batekin betetzen dot. Gehixegi be etxat gustatzen baiña Gabonak diela eta zelèbrau egin bihar die.

**GOROSTI**  
**Taberna**

☎ 76 62 96

Zurrategi plaza ANTZUOLA

**igok eta Txomin**

*Pintura orokorrean.*

*Paper, tela, binilo, kortxo... estalduak.  
Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.*

ANTZUOLA  
☎ 76 60 39

BERGARA  
☎ 76 19 98

**LARREA**

**TABERNA**

**Kalebarren, 17  
ANTZUOLA**

# Natibittate, ase eta bete

**“Guk eukitzen giñuan poza! intxaur-saltsia, Kontxaneko kokodrilua, nazimentua, erregien erregalua...” Abenduan murgildurik gaudenez, batek baino gehiagok ekarriko ditu oroimenera Gabonak izaten zirena. Horretaz aritu gara Angeles, Ines eta Martinarekin eta eurei entzunaz, fetxa horiek suposatzen zutena jakin nahi izan dugu.**



**G** abon egunean, gabon kantak abesten irtengo dira umeak.

“Geu be irtetzen giñan” dio Angelesekin, “nazimentua egitten giñuan ardirikin, pastoriakin eta figura danekin; odolgixari iriña botatzen gontsan edurra egitteko; gero nazimentua andan ipintzen zan eta auzuan irtetzen giñan panderua juaz eta kantuan”.

“Bai nazimentua –dio Martinak– zeukanak bakarrik, ze etzeukana poltsiakin irtetzen zan, eta zeukanari begira inbidixaz egoten giñan. Baiña kantuan danok egitten giñuan, Gabon gabonseta, erroa larroseta, Jesus jaio da ta, jo degun krisketa; Belengo portalian ate zabaletan, hotzak ikaraz dago, Jesus lastuetan...”

**Gabonetako jakiak bereziak izaten al ziren?**

“Orduan guk eukitzen giñuan poza” dio Angelesekin. “Gabon gabian, olixo-azia eta bakallaua edo bixigua jaten giñuan –dio Martinak– eta postrerako intxaur saltsia eta pikuekin eta okan pasekin egindako konpotia; hurrengo egunian, Natibittate, ase eta bete esan eta berriz jatera; guriña be egitten zan, baiña gu turroia etaratzeko desiatzen egoten giñan. Gabonetan dana gertu eukitzen zan, garrafoi ardaa gizonendako eta gabon subilla beheko sua ederragua izeteko; gaiñera gero errondara jun bihar zan”.

**Errondara? Zer da hori ?**

“Nun egingo juau errondia? gaur halako etxetan egingo juau” –Martinak– “kartetan egitten zan; zazpi tta erdixan, briskan, punttuan; Gabon Zaharrak arte segi egitten zan. “Jai bezela izeten zan denbora dana, –Ines– San Esteban eguna be zelebratzen giñuan”.

“Bai, eta gero lastazauak hartu eta mezetara juten zan –Martinak–. Edarrak jungo zien mutillak 6etarako mezetara!”.

Mutilak goizeko 6etan joaten omen ziren mezetara, baina eurak 10etan joaten ziren elizara; “Natibittate goizian, bat jaikitzen zan eta txokolatia egitten zeban bestiei ohera eruateko”.

**San Esteban eguna abenduaren 26a ospatzen zenutela esan duzue?**

“Bai... orduan bai... San Esteban txe, lehen letxe “ dio Martinak. “Erromerixia egoten zan eta gramolia ipintzen zan plazan” –Angelesekin–. “Bai, baiña aramaittakuakin etxera e!–Martinak–, azkenengo kanpaiakin erretiratzen giñan”.

**Kontxaneko mazapoia ere zuen garaikoa omen da, ezta?**

“Haura zan kokodrilu edarra; eska-paratian eukitzen zeban urtero, zatika saltzeko; gabonsarixak pe egoten zien bezeruentzako, menbrillua, galletak...”.

**Olentzero ez baina Erregeak etortzen omen ziren Antzuolara?**

“Zeiñek baiño zein brillo hobiau-kin ipintzen giñutzen zapata paria bentanan, kanpotik –Martina– naranjak edo mazapoiak ekartzen zoskuen”; “batzutan dirua be bai –Angeles– baiña gero esaten zoskuen «bueno oin gorde egingo dogu gero zeozer erosteko» eta atzera kendu egitten zoskuen”.

■ ■ ■  
 “Natibittate goizian bat jaikitzen zan eta txokolatia egitten zeban bestiendako”  
 ■ ■ ■



Orain dela 65 bat urteko Gabonei buruz aritu ginen Santionekuekin.



Zurrategi plaza, 4 behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 78 71 80

Sukalderako eta bainurako altzariak  
 Altzari rustikoetan  
 espezializatuak

Osasuna

## Txakur kistea (Hidatosia)

### - Zer da txakur kistea deritzona?

- Txakurrengandik gizakiongana pasatu daitekeen gaisotasuna da. Txakurrek, aurretik kutsatutako ardi baten barruak (gibelak, birikiak etabar) jatean, gaisotasuna transmititzen dute eta, ondorioz, gure gorputzean kiste bat sortzen da. Kistea boltsa moduko bat da eta barruan, likidoaz gain, parasitoaren fase bat eramaten du.

### - Zela gertatzen da transmisioa?

- Txakurrengandik pertsonenganako transmisioa bi modutara gertatu daiteke: alde batetik, barazki gordinak jateagatik, barazki horiek tratatu gabeko urarekin ureztatuta daudenean. Parasito horren arraultzak errekan egon daitezke; era berean, txakurrak barazkietan kaka egitean ere badago gaisotasuna jasotzeko arriskua.

Bestalde, txakurrarekin kontaktu zuzena izatean ere ematen da transmisioa. Txakurrekin jo-

lastean kaka arrastoak edota parasito horren arraultzak eskuetan geratu daitezke; beraz, kontuz ibili beharra dago.

### - Zeintzuk dira gaisotasunaren sintomak?

- Txakurren kasuan sintomatologia gutxi dago: noizean behin botaka egiten dute eta beherakoa ere izaten dute. Hesteetako parasitua da, te-



**ROMAN LAZPIUR**

(Albaitaria)

niaren familiakoa, zizare mota bat.

Pertsonen dagokienez, sintomak kisteak tamainu handia hartu duenean agertzen dira. Kistea gibelan, biriketan, garunean edota bihotzean agertu daiteke baina arruntean gibelan edo biriketan

azaltzea da. Gaisotasun nahiko larria da, konponbide bakarra zirurgia izaten delako eta, beraz, arrisku handia daukalako.

### - Zein da prebentzioa?

- Pertsonen kasuan eskuak ondo garbitu beharra dago txakurrekin ibili eta gero eta barazkiak ere ondo garbitzea komeni da (garbitzen ditugun uretan lejia tanta batzuk botaz, adibidez). Txakurren prebentzioa, berriz, medikamentu batekin lortuko dugu. Urte guztian zehar azaldu daitekeen gaisotasuna denez, txakur guztiei hiru hilabetez behin medikamentua emango diegu, tenia horiek akabatzeke. Nahiz eta gaisotasun hori ez garatu, prebentzio modura ondo etorriko da medikamentu hori hartzea. Eta tenia desagertu arte txakurrarekin kontaktua saihestu egin behar dugu.

### - Kasu asko daude?

- Zorionez Euskal Herrian ez da kasu gehiegi ematen. Beti izaten dira kasu batzuk, baina Errioxan, Nafarroan edota Aragoi eragina haundiagoa da, bildots gehiago jaten delako han. Baserriko txakurretan eta ehiza txakurretan agertzen da nagusiki, ardi hilak jateko erraztasun handiagoa daukatelako. Kaleko txakurretan arraragoa izaten da.

## “Txakurrek, kutsatutako ardi baten barruak jatean transmititzen dute hidatosia”



Ondo garbituta ez dauden barazkiek ere txakur kistea ekar dezakete.

## REMENTERIA

### Altzariak

Egongelak / Logelak  
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

## ZAPELAITZ

### Taberna

Eguneko menuak  
astelehenetik ostiralera

San Lorenzo, 25 BERGARA

## Gallastegi

### Jostundegia

Mahoizko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 76 10 85

# Igaroko zenituzke Gabonak etxetik kanpo?




**Felix Maiztegi**

Beharbada bai, baina ez daukat aukerarik, lan egin beharra daukat eta. Baina gustatzen zait Gabon egunean Bergaran egotea. Gabon Zaharrak, berriz, asko galdu du...




**Mireia Cid**

Bueno, ni Guadalajarara joaten naiz Gabonetan, familiarekin egotera. Baina ezin izango nintzateke kanpora joan; seme-alabak edukita... Bestela gustatuko litzaidake, bai.




**Juan Sanchez**

Niretako Gabonak Bergaran bertan eta familiarekin igarotzea da onena. Ez dut sekula irtetzeko gogorik izan, Gabonetan behintzat. Eta herriko jaietan ere ez.



**Maria Muñoz**

Ez dakit, egun gutxi dira eta nahiago dut hemen geratzea. Aurtun Bartzelonan igaroko ditut egun batzuk baina egun inportanteetan hemen egongo naiz.



**Juan Mari Igarza**

Nahiago dut familiarekin pasatzea. Gurasoak bizi diren bitartean Gabonak etxean ospatzea. Lanean ere ez dugu aukerarik izaten kanpora joan ahal izateko...



**Maria Angeles Bilbao**

Ez, Gabonak familian ospatzea gustatzen zait. Ez dut kanpora joateko tentaziorik izaten eta norabait joatekotan, edurretara joango nintzateke.

**MARGA JANTZIDENDA**  
 BEROKIA, PARKA EDO TXAKETOIA EROSTEAGATIK  
**PRAKAK EDO JERTSEA OPARI!!!**  
 Aprobetxatu Gabonetako gure eskaintza bereziak.  
 MARGA JANTZIDENDA, SAN PEDRO 20 TF/F. 76 05 37

Amillaga (Gasolindegi ondoan). Tfnoa: 76 57 34  
**ZABALETA**  
**ERROTULOAK**  
 Mota guztietako errotuloak  
 Fatxadak, eskapareak...



## Hitzetik hortzera dagoen aldeaz...

*edo nola hagineta mina tortura bihurtzen den euskal presoentzako*

**G**ertakizuna: anaia espetxeratuta dago hemendik 600 km.ra eta hagineta mina du, hagineta batek ohikoa ez den bidea hartu duelako. Medikarengana jo du eta harek radiografia eta ebakuntza beharko dituela esan dio. Ez da lehen aldia. Aurrekoan (iaz edo) kartzela dagoen herriko dentistarengana eraman zuten eta ordubetean kartzelan zegoen guztia konponduta. Baina oraingoan?

Ezin dutela herrira atera esan diote. Eta nola konpondu arazoa? Ez dakigun zein legeriaren arabera, ebakuntza kartzela barruan egin behar diotela adierazi zaio. Baina, a ze kasualitatea! Bere kartzelan ez dago ahoko ebakuntzak egiteko jarleku egokiturik.

Beraz, beste kartzela batera joan behar duela esan diote eta lekualdatze-instantzia berak bete beharko duela. Tramitatzeko, bi hilabete gutxienez. Gero, kartzela egokia aurkitu, gero traslazioa eta gero ebakuntzako prozesua hasi.

Medikuek esan diotenez, urtebete egon liteke antibiotikoak eta minaren aurkako botikak hartzen, arazoa konpondu arte. Eta medikamentu horiek urdailean egiten diote kalte, eta abar...

Hainbatek, guzti honi gauzak bere onetik ateratzea dela iriziko dio baina hamaika ikusteko jaio ginela uste dugunok ez du inoiz agortzen harrizteko ahalmena. Eta berriketa luzeak, eta Parlamentuko erabaki asko, eta giza eskubide ugari, baina euskal presoek ematen zaien tratua berezi eta mingarriak, esanak esan, ez du amaierarik.

**Fermin LAZKANO**



## Oreka

**A**urrerakuntza, garapena, teknologia, berritasunak ugari softu dira gure gizarte maitagarri honetan. Honen ondo-ondoan, eta nahi izanez gero *pack* berean sartuta, aurki genitzake teledendak, gizatasuna, tolerantzia, errespetua; nola ez, garai hauetan, maitasuna, beroa, alaitasuna, eta bide batez, bakea.

Gizakiok materiala lantzen artistak izan gara eta horrela jarraitzen dugu, baina bide-bazterrean gizabanakoak gizakia utzi duela ematen dit. Ez du jakin izan oreka mantentzen (ziurrenik, egon ere ez dagoelako), baina oreka saldu, aldarrikatu eta nahi gabe, betiko moduan, erosi ere egin du.

Bere burua edo urkoarena engainatzen ez duenak jakingo du gizakiak orekarik inoiz ez duela lortu, bere misterioz, eta ez ezagutzaz, beteriko historian zehar. Beharko luke jakin, oreka hitza eta bere esanahia ere, materiale bihurtu dituela gizakiak (batipak gizonak). Ez du gizakiak bere izatea inoiz ongi ulertu eta halere, bere izatearen balio guztia orekaren menpe utzi du. Izaki guztiei, naturari, izate orokorrari kalte konponezina eginez gure gizaki maiteak orekari Dirua deitu dio. Harriztekoa benetan!

- Orekia nahi dabenak dirua bihadatu, dirua eballi, ebaltzen ikasi, ebaltzen jakin!- diosku Gizaki Ahalguztidunak.

- Baina ez dago beste misterioik?- dio gizabanakoak.

- Ez! Orekian izenian, izatia hori da!

- Eta orduan, zenbat diru bihakot orekia lortzeko?

- Jo, jo, jo! Gixajua halakua, dagon diru dana bihako zu!

Beste danen desorekiak bakarrik ekarriko dau zure orekia. Jo, jo, jo.

Ederra egin dugu...

**Iñaki GABILONDO**



**LAGUN ARO**

ASEGURUAK



**RAC**  
VASCO NAVARRO

**AGENTEA-DELEGATUA**

**Ramon Iraegi Eguren**

Ramon Maria Lili, 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxes: 76 41 54

ORDUTEGIA: Asteleheneetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00

Larunbatetan: 9.00-13.00

**TABERNA  
ZAHARRA**

*Jatetxea*

bazkari eta  
afariak

**Tfnoa: 76 21 21  
ANGIOZAR**



■ **Arrantzale bikainak**

**Jose txo Urbieta "Kaxeta"** eta **Enrike Fernandez** osintxuarrek **3,760 kg.ko lupina harrapatu** zuten joan zen zapatuan. Enrikek eta "Kaxeta"k nahikoa izerdi bota zuten argazkian ikusi daitekeen pieza eder hori kainaberarekin ateratzeko, baina azkenean lortu zuten etxera ekarri eta lagunen aurrean harro-harro erakustea. Ez digute esan nahi izan **Gipuzkoako kostaldeko** zein puntutan harrapatu duten lupina. Kontua da izoztu eta Gabonetan jango dutela... Zorionak eta on egin!!

■ **40 urte zoriontsu askoak**

Aurten **40 urte** bete dituzten bergararrek anai arteko afaria ospatu zuten Zumelaga jatetxean joan zen azaroaren 29an. **41 lagun** elkartu ziren soinu-jole eta guzti, **Manu Iztueta** akordeoilaria kintakoa baita. Primeran pasatu zutela bistan da, ondo afalduko zutela seguru gaude.



■ **Basurdeak Labegaraietan**

Orain pare bat aste **hiru basurde** agertu ziren **Zerrajerako kanalean**. Basurdeetako bat, **100 kg.** inguruko pisua zuena, hilda azaldu zen kanaleko helize batekin katiatu ondoren. Basurdea itota hil zen. Zerrajerako zaindaria deituta, udaltzainak eta hainbat herritar azaldu ziren bertara. Beste basurde batek (**45 kg.** ingurukoa) ihes egitea lortu zuen eta txikiena (goiko argazkian) ezin izan zuten kanaletik bizirik atera. Udaltzaingoak emandako informazioaren arabera, soka batekin lotzen saiatu ziren arren, basurdeak (**50 bat kg.koa**) soka eusten zuen baserritarra erasotzeko ahalegina egin zuen eta berau basurdea tirokatu beharrean aurkitu zen. Hildako bi basurdeak baserritarrak eraman zituen. Orain aste batzuk herritar batek MAYCeko errotondatik gertu basurde bat bidea gurutzatzen ikusi zuen eta baliteke ondoren Zerrajeran agertu direnetako bat izatea.



**Aldoka  
Maldoka**

**TABERNA**

Kruz Gallastegi BERGARA

**iRUDI**

**Erlojudenda  
Bitxitegia**

Ibargarai, 2  
☎ 76 51 65

**ETXAGI**

**JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO  
MENUA, GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12



■ **Bidekurutzeta 14an jaiotakoak**

Urtero moduan, **Bidekurutzeta kaleko 14. zenbakian** jaiotako bergarrek bazkaria egin zuten domekan Pertxa elkartearen. Bidekurutzeta 14koek **12 bat urte** daramatzate urtean behin elkarrekin bazkaltzen eta

domekan **42 lagun** bildu ziren. Eguerdian, San Pedron, hildakoen oroimenezko meza entzun ondoren, txikiteoa egin zuten eta, jarraian, bazkaria Pertxan. Giroa primerakoa izan zen eta partaideak hurrengo abenduan beste bazkari bat egitekotan geratu ziren. Mahai baten inguruan biltzeko edozein aitzakia da ona...

■ **Zuri-zuri**

Neguaeren atarian elurrak bisitatu gaitu aste honetan. Ez du asko egin, baina bai teiltatuak eta inguruko mendietako zelaiaak zuritzeko lain. Martitzen eguerdian hasi eta gaueko hamarrak aldera arte etengabe jardun zuen. **Luis Mari Agirrek**

emandako datuen arabera, **8,4 litro metro karratuko** jaso ziren martitzenean eta batazbesteko tenperatura **0 gradukoa** izan zen.



■ **De Zerioen estudio berria**

**Xabier De Zerio** eskultore bergararraren estudio berria inauguratu zuten aurreko eguakitzean **Bolun**. Azken hil hauetan lokalean egokitze lanak egin ondoren, De Zerio bere lokal berria aurkeztu zien lagunei. Lokalak bi pisu dauzka eta bertan

lan egiteaz gain, bere lanen **erakusketa iraunkorra** izango du De Zerio. Eguakitzeko inaugurazio ekitaldian jende dexente bildu zen Aranerreka 25eko lokalean eta lokala bera eta De Zerio egindako azken lanak ikusi ondoren, luntxa izan zuten.



**Zertan dihardute ba?**



**Iñaki Irizar** 31 urteko biologo bergararrak (argazkian) eta Rosa Errazkin hondarribitarrak, Udalak Seminarioko museoan lan egiteko kaleratutako zoologo eta kimiko lanpostuak eskuratu dituzte. Iñakik eta Rosak, Aranzadi Zientzia elkarteke geologo batekin batera, museoko bilduma aurkeztuz prestatzeko lana izango dute. Proiektuaren koordinazioa Xabier Aranburu udal museologoak izango du eta datozen bost urteetan museoko bilduma osatuko duten 600-700 piezak prest egongo dira. Irizar eta Errazkin museoan lanean ibilitakoak dira.

**ARREGI**

**Eraikuntza materialeak**

Biltegia Tellerian, Labegaraian.  
Tfnoa: 76 27 93

**ZUBIETA**

**elektragintza**

MOTORREN BOBINAKETA  
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea  
☎ 76 23 48

**ARGI PLASTIC**

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...  
Leihoak, atekak, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik**



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA  
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

# Angel Ezkurra

**Angel Ezkurra 20 urteko bergarar gaztea aski ezaguna dugu herrian. Gabon gauean Jam aretoan egongo den jaialdian *disc-jockey* lanetan arituko da Jameko Fer eta Berasa eta garai batean Tartufon ibilitako Txarlirekin batera. Jaialdia hamabi eta erdiak aldera hasiko da.**

- Zelako musika *pintxatuko* duzu eguastenean?
- Denetik: mexikanadak, musika euskalduna eta kañeroa ere bai.
- Zer behar da *DJ on bat* izateko?
- Entzumena, ez?
- Zelako ekipoa daukazu?
- Bi konpakto, nahasketarako mahaia, pletina eta plater bat.
- Konpaktoak ala biniloak?
- Konpaktoak.
- Zenbat disko dituzu etxean?
- 40 bat konpakto eta 6 bat disko.
- Non erosten dituzu?
- Normalean Bergaran.
- Bakalao musika atsegin?
- Bai, asko.
- Entzun ezin duzun musika estilo bat?
- Klasikoa ez zait gehiegi gustatzen.
- Kantari bat/musika talde bat?
- Prodigy.



*“Eguastenean estilo esberdineko musika pintxatuko dut. Bakalao musika ere asko gustatzen zait. Etxean musikaren bolumena jaisteko esaten didate”*

- Musika kritika jarraitzen duzu?
- Periodikoetan datorrena...
- Musika aldizkari bat?
- *Entzun.*
- Egunean zenbat ordu *pintxatzen?*
- Pare bat edo...
- Etxean zer esaten dizute?
- Bolumena jaisteko.
- Hobby bat?
- Musika eta txirrindularitza.
- Olano ondo ibiliko da 98an?
- Tourrean hirugarren gutxienez...
- Reala edo Athletica aurrerago aurtengo Ligan?
- Athletica, duda barik.
- Gabonak gustatzen zaizkizu?
- Bai.
- Gabonetako egunik onena?
- Errege bezpera.
- Turroi gogorra ala biguna?
- Gogorra.
- Mahats alerik jaten duzu Gabon Zaharretan?
- Ez.
- Eta txanpanik edan?
- Bai, piskat.
- Zuen etxean, jaiotza ala arbola?
- Jaiotza.
- Olentzero ala Erregeak?
- Erregeak.
- Eta zer eskatu diezu aurten?
- Ezer ez. Ikusi behar...
- Txikitan jasotako oparirik gustokoena?
- Athleticeko jokalariek sinatutako baloia.

## EDEL TAPIZDENDA

*Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu*

**Alfonbrak, kortinak,  
kortinoiak, koltzak,  
edredoiak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

**Bidekurutzeta, 14 BERGARA**

## GISASOLA BURDINAKI DENDA

### "Erratzu"

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA

## ANTXONI

J A T E T X E A

Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean JANGELA itxita.

*Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu.*

Fraiskozuri 7 Tf. 76 20 40



**ETXEBIZITZA**

**Pisua** alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 11 12.

**Lokala** salgai edo alokairuan Masterrekan. 150 m<sup>2</sup>. ☎ 76 11 89.

**Garaje** bikoitza alokairuan Torrekuan. ☎ 76 30 32.

**Pisua** alokairuan Bidekuruzeta 14an. ☎ 76 36 99.

**Garajea** salgai Kruz Gailastegin. ☎ 76 27 61.

**Garajea** alokairuan Ibargarai 37an. ☎ 76 33 76.

**Garajea** salgai Martokon. ☎ 76 35 50.

**Pisua** salgai Aranerrekan. ☎ 76 42 65 (gauzez).

**Zubiaurren** pisua osatzeko jendea behar da. ☎ 76 71 12.

**Garajea** salgai Masterrekan. ☎ 78 36 65 (20:00etatik 22:00etara deitu).

**Pisua** hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 41 16.

**Etxea** alokairuan Antzuolan. ☎ 76 64 24.

**Lokala** alokairuan San Pedron. ☎ 76 11 64.

**Pisua** salgai Dr. Fleming kalean. ☎ 76 56 99.

**Garajea** salgai Masterrekan. ☎ 76 24 57.

**Garajea** salgai San Lorentzon. ☎ 76 45 60/51 45.

**DENETARIK**

**Manikiak** behar ditut eskaparaterako. ☎ 85 09 18.

**Altzariak** prezio onean salgai. ☎ 76 30 93.

**Punk** eta hard-core musika erosten dut (LP eta singleak). ☎ 76 38 25.

**Pañoleta** bat galdu dut Barrenkalen. Topatuz gero Jolas dendan entregatu.

**Opel Kadett** kotxea salgai (SS-AC). ☎ 76 29 81.

**Pastor aleman** txakurkumeak (arrak) oparitzen ditut. ☎ 78 19 43/78 22 41.

**Pultsera** bat galdu nuen Mugertzako gainean. Sarituko da. ☎ 76 12 86.

**Vitus** bizikleta egoera onean salgai. ☎ 76 08 21 (20:00etatik 22:00etara).

**Bigarren** eskuko faxa erosiko genuke. ☎ 76 58 37.

**Aprilia** rally motorra (49 cc.) salgai. ☎ 76 62 24.

**Senegalera**, Afrikara bidaiatzaile taldea osatzeko lagun bat behar da. ☎ 76 20 63 (gauzez).

**Pioneer** musika ekipoa salgai. ☎ 907 40 28 27.

**LANA**

**Egun osoan** heldu bat zaintzeko pertsona behar da. ☎ 76 00 85.

**Etxeko** garbiketarako egiteko emakumea eskeintzen da. ☎ 76 38 00.

**Ingeles** klaseak ematen ditut. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Andre** batek zaharrak zaindu edo etxeko garbiketarako egiten ditu. ☎ 76 00 90.

**Enpresaritzako** Zientzietako matematika irakaslea behar da. ☎ 76 38 28.

**OHO** eta DBH klaseak Antzuolan. ☎ 78 71 32.

**Frantses** irakaslea behar da. ☎ 76 06 87.

**Ingeles** klaseak ematen ditut. ☎ 76 53 88 (Rosa).

**Mate**, fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 24 31.

**Mate** klaseak ematen dira. ☎ 76 03 72 (Nerea).

**Helduak** zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke astebukaeran. ☎ 76 56 66.

**Lizentziatu** batek mate, fisika eta kimika klaseak ematen ditu. ☎ 76 70 40.

**Neska** batek astebukaretan helduak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 56 66.

**Administratibo** lanerako titulodun neska eskeintzen da. ☎ 907 94 06 67.

**Tabernari** euskalduna behar da. ☎ 76 20 62.

**Mate**, fisika eta informatika klaseak. ☎ 76 46 03.

**OHO** eta BBB klaseak ematen dira. ☎ 76 33 26.

**IKASTARO INTENTSIBOAK****INGELES  
FRANTSESA  
ALEMANA****Urtarrilaren 12tik apirilaren 8ra.**

- BI HILABETEKO IRAUPENA.
- EGUNERO BI EDO BI ORDU ETA ERDI.
- GOIZEZ NAHIZ ARRATSALDEZ.

**HONEZ GAIN BESTE  
HAINBAT IKASTARO**

**INFORMAZIOA:**

**Bergarako UNED. S. Martin plaza z/g (3. pisua)**  
☎ 76 06 87

**Matrikula-epea urtarrilaren 7tik 10era!**

Bulego ordutegia: 10-13 eta 16-20.

# L I L U R A

## EDERTZE INSTITUTUA

Bidekurutzeta 7, 1. Tf. 76 31 71

"LILURAK"

Zorionok eta 1998  
zoriontsua opa diezkiezu

*Lupa Garcia*



*Egiozu opari... edertasuna*

*Deskontu haundiak 1998ko urtarrilaren 20ra arte!*

## Eskaparate lehiaketa 97



Eskaparate lehiaketan partehartzaileak:

**KILIKA** dekorazioa

**LISLORE** loradenda

**AGIRRE** jantzidenda

**ANEZKA** lentzeria

**KANELA** dekorazioa

**TXUKUN** berezitasunak

**ALGA** lurrindegia

**SUBIJAI** jantzidenda

**JAUJA** kirolak

**NINIKA** loradenda

**MANSO** optika

**EGILUZ** lurrindenda

**MAYA** artisautzako bitxi-denda

**GISASOLA** burdinaki denda

**SIASKA** haurrentzako jantzidenda

**BASTER** jantzidenda



Udalak antolatutako eskaparate lehiaketara aurkeztutakoen artean,  
gehien gustatu zaidana hauxe da: .....

Izen-deiturak..... Telefonoa.....

**Saria: 15.000 PTA**

Moztu paper hau eta ekarri **Kultur Etxera** (Errotalde jauregia z/g Bergara) astebete baino lehen.

## Lehen maila

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. ERROTAGAIN	25	11	43	23
2. A ZE FLAXA ETXAGI	24	11	46	20
3. MONGATXURRAK	24	11	31	16
4. PAGOMENDI	19	11	51	29
5. AZPETXI JATETXEA	17	11	42	35
6. ETXAGI	15	11	40	37
7. BAR CANALEJAS	14	11	34	36
8. BILDURBAREK OPEL/LAM	12	11	25	35
9. JAUJA OH ZEREZOS	10*	11	30	51
10. AGINASPI	9	11	28	59
11. ARLOTEAK/OILAGORRA	7	11	16	29
12. ORTZI	6	11	17	33

## A multzoa

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. AGIRREBEÑA JATETXEA	27	11	72	22
2. EZINLEIKE	27	11	70	28
3. MANITOU	25*	11	88	12
4. SHAKTALE	19	11	52	16
5. MOSKIS	16	11	36	34
6. MRW	16	11	37	39
7. INDARGORRI	14	11	51	38
8. ALDOKA MALDOKA	14	11	28	49
9. GANBARA ARI ARI	13*	11	26	27
10. IGANDEKOAK	6*	11	34	57
11. POLIDEPORTIVO TABERNA	6	11	34	88
12. KAIXO	0	11	12	130

## B multzoa


TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. ARTUSAMAK	27	10	72	20
2. SLO	24	10	42	25
3. BAYER	21	10	36	26
4. AMOZKIBAR	19	10	38	30
5. AUTOBEREZI	16	10	42	51
6. UVE BIKOITZA	15	10	36	30
7. JAKINA PT	12	10	38	34
8. USOA	9	10	37	50
9. ERDIBITERRAK	8	10	31	39
10. TXIPIRON	7	10	22	45
11. AMILOTX	1*	10	14	58

## C multzoa

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. FAC	27	10	57	21
2. GUADALEST	24	10	39	24
3. LA JUVE	22	10	35	18
4. MATXAKATEGI	18	10	27	29
5. UFALA	15	10	40	35
6. ERI SIRIMIRI	13	10	29	33
7. KOMANDO PIPERRAK	12	10	28	34
8. BAR GANBARA	10	10	34	36
9. ETENGABE	10	10	25	34
10. LA PEÑA DML	6*	10	28	41
11. PATATUS	0*	10	24	61

\* KARNETAK EZ ENTREGATZEARREN PUNTUAK KENDU ZAIZKIO.

# Jokoz kanpo



## Xabier Gabilondo

### SHAKTALE

#### ZELA DOA TXAPELKETA?

Nahiko ondo gabiltza. Lehenengo itzulia jokatu ondoren, laugarren postuan geratu gara eta hurrengo fasean onenen multzoan jokatzeko aukera izango dugu.

#### ESPERO ZENUTEN HORRELA IBILTZEA?

Bai, taldeko jokalaririk batzuk BKEn jokatu dute eta hori igartzen da.

#### HURRENGO FASERAKO ZER ASMO DITUZUE?

Erdialdean ibiltzeko asmoa dugu. Azken finean, hauek lagunarteko partiduak dira.

#### ZEIN DA GEHIEN GUSTATU ZAIZUN TALDEA?

Manitou oso talde ona da.

#### ZURE TALDEKO JOKALARIRIK ONENA?

Gure taldeko onena Xabier Lazkano "Xagu" dela uste dut.

#### ZER POSTUTAN JOKATZEN DUZU?

Ez daukat postu fijoarik. Ni gora eta behera antxintxiketan ibiltzen naiz.

#### GOLIK SARTU DUZU?

Aurten 8 gol sartu ditut. Talde ona daukagu eta horrela erreza da golak sartzea.

#### REALA UEFARAKO SAILKATUKO DA?

Orain oso ondo dabil, baina azkenengo urteetan denboraldi bukaeran beti izan du jeitsiera bat jokoan. Halere, sailkatuko dela uste dut.

#### MUNDIALA ZE TALDEK IRABAZIKO DU?

Brasilek, Alemaniak edo Espainiak.

## EMAITZAK

MONGATXURRAK-ORTZI	1-1
ERROTAGAIN-A ZE FLAXA ETXAGI	4-10
IGANDEKOAK-GANBARA ARI ARI	3-2
SHAKTALE-EZINLEIKE	0-2
ALDOKA MALDOKA-MANITOU	2-19
UVE BIKOITZA-ARTUSAMAK	2-3
AMOZKIBAR-AUTOBEREZI	7-1
LA PEÑA DML-UFALA	2-6
FAC-ERI SIRIMIRI	5-2

## PARTIDUAK

### Zapatuan barruan

09:00: IGANDERKOAK-AMILOTX • PATATUS  
10:00: LA PEÑA DML-PATATUS • AMILOTX  
11:00: KAIXO-ERDIBITERRAK • LA PEÑA DML

### Zapatuan kanpoan

10:00: SLO-BAYER • FAC  
11:00: UFALA-FAC • BAYER  
16:00: EZINLEIKE-AMOZKIBAR • A ZE FLAXA ETXAGI  
17:00: BAR CANALEJAS-A ZE FLAXA ETXAGI • AMILOTX

### Domekan barruan

09:00: TXIPIRON-POLIDEPORTIVO TABERNA • ETENGABE  
10:00: GANBARA ARI ARI-ETENGABE • MATXAKATEGI  
11:00: MATXAKATEGI-MOSKIS • GANBARA ARI ARI  
16:00: ALDOKA MALDOKA-UVE BIKOITZA • INDARGORRI  
17:00: JAKINA PT-INDARGORRI • KOMANDO PIPERRAK  
18:00: ERI SIRIMIRI-KOMANDO PIPERRAK • BAR GANBARA  
19:00: MRW-BAR GANBARA • ARTUSAMAK  
20:00: AGIRREBEÑA JATETXEA-ARTUSAMAK • MRW

### Domekan kanpoan

11:00: SHAKTALE-GUADALEST • MANITOU  
12:00: LA JUVE-MANITOU • GUADALEST  
16:00: ETXAGI-ERROTAGAIN • ORTZI  
17:00: JAUJA OH ZEREZOS-ORTZI • MONGATXURRAK  
18:00: MONGATXURRAK-BILDURBAREK • OH ZEREZOS

## JARDUNALDIA BERTAN BEHERA?

ASTE HONETAKO JARDUNALDIKO PARTIDUAK MARTITZENEAN JASO GENITUEN, BETIKO MODUAN, BERRIGARAN. HALERE, ANTOLAKETA BATZORDEKO LAU KIDEK (EUREN ESANETAN GEHIENGOAK) JARDUNALDIA EZ ZELA JOKATUKO ETA ORRI HONETAN JASOTA DAGOEN SAILKAPENA EZ DELA ZUZENA ESAN ZIGUTEN EGUASTENEAN. "LAGUNAK" ELKARTEKO BURUAK, BERRIZ, HAU DELA SAILKAPEN OFIZIALA ETA JARDUNALDIA JOKATUKO EGINGO DELA ESAN DIGU. EZ DAKIGU ZER GERTATUKO DEN, ANTOKALETA BATZORDEKO KIDEEN ARTEAN HIKA MIKAKA DABILTZA ETA.

## NESKEN FUTBITO TXAPELKETA

URTARRILEAN HASIKO DEN NESKEN FUTBITO TXAPELKETA ANTOLATZEKO BILERA EGINGO DA DOMEKA HONETAN, 16:00ETAN, MIGUEL ALTUNA BERRIKO ALDAGELETAN. INTERESA DUTENEK BERTARA AGERTZEKO ESKATU DUTE LAGUNAK ELKARTEKOEK.

**TXINPARTAK****Euskadiko karate txapelketan**

Aitor Delarriberete eta Mikel Arakistain domekan goizeko 10:00etan Arrasaten jokatu den Euskadiko Karate txapelketan izango dira. Delarriberete Gipuzkoako txapelketan 2. sailkatu zen eta Arakistain deskalifikatua izan zen, lan ona egin arren.

**Klubun arteko Gipuzkoako pilota txapelketa**

Asteburu honetan jokatu dira Gipuzkoako klubun arteko pilota txapelketaren finalak Idiazabalen. Zapatuan 16:30etatik aurrera Martinek, junior mailan, banaka jokatu du eta Aranzeta eta Gutierrezek binaka. Domekan 10:30etatik aurrera seniorren binakako finala jokatu dute Muruamendiaraz eta Idiakezek.

**Bergarak sei gol sartu zizkion Antzuolari**

**BKEko** futbol talde nagusiak 6 eta 0 irabazi zion Antzuolari. Enrike Nietoren mutilek hasieratik erakutsi zuten euren nagusitasuna eta berehala aurreratu ziren Errastik sartutako bi goli esker. BKEk bigarren gola sartu eta gero antzuolarrek joko hobe egin zuten eta gola sartzeko aukera garbirik izan ez arren aukeraren bat izan zuten. Bigarren zatia hasi eta berehala, Errastik bere hirugarren gola sartu zuen eta ordutik aurrera BKEkoek golak sartzeko aukera sorta bikaina izan zuten. Laugarrena ere Errastik sartu zuen, eta gainontzeko bi golak Iñigok eta Osorok sartu zituzten.

Partidu horren ostean BKE neguko txapelduna da lehenengo itzulia bukatzeko partidu bakarra falta denean bigarrenari, Oriokori, 4 puntuko aldea ateratzen baitio.

Asteburu honetan Bergarak Ilintxaren aurka neurtuko ditu indarrak



Partidu ostean Zuloa elkartearen afaldu zuten elkarrekin.

eta Nietok orain arteko arratxa onari eutsiko diotela uste du. Izan ere, lehenengo itzulian bergarrek partidu bakarra galdu dute, lehenengo ihardunaldian Hernaniren aurka eta etxean. Kanpoan oraindik ez dute partidurik galdu eta bakarrik 6 gol jaso dituzte. Egindako lehenengo itzuli izugarria ikusi eta gero, BKEko arduradunek mailaz igotzea eskura dagoen helburutzat jotzen dute.

Halere, bigarren itzulia gogorra izango da eta jokalariek orain arte erakutsi duten gogo eta kontzentrazioa erakutsi beharko dute mailaz igo nahi badute. Zuzenean mailaz igotzeko lehenengo postuan sailkatu behar da eta 2. postuan sailkatzen badira, Gipuzkoan jokatu den Lehen Maila Erregionaleko beste multzoko 2.aren aurka bi itzultira jokatu den kanporaketak esango du zein talde igoko den.

**Hiribildu Agiria jaso du Aitor Zabaletak**

Aitor Zabaletak omenaldi beroa jaso zuen joan zen zapatuan Udaletxeko pleno aretoan. Zabaletak Bergarako Hiribildu Agiria jaso zuen Victoriano Gallastegi alkatearen eskutik. Zabaletak eskerrak eman zizkion alkateari eta, halaber, urte hauetan lagundu diotenei. Aurreko egunean, eguakitzean, Zabaleta San Martin plazan autografoak sinatzen aritu zen. Zapatuko omenaldian Eduardo Chillida eskultorea izan zen (argazkian ikusi dezakezue), eskultore ezagunaren semea Zabaletaren aginduetara baitabil.



## KARTELDEGIA

## FUTBOLA

## ◆ Bergara-Idiazabal

Ligarren maila kadeteak.  
Zapatua. 15:30.  
Ipintza futbol zelaia.

## ◆ Bergara-Zarautz

Lehenengo mailako jubenilak.  
Zapatua. 17:15.  
Ipintza futbol zelaia.

## ESKUBALOIA

## ◆ Bergara-Goierri

Kadete mutilak.  
Zapatua. 16:00.  
Labegarieta kiroldegia.

## ◆ Iraundi BKE-Ormaiztegi

Senior mutilak.  
Zapatua. 17:15.  
Labegarieta kiroldegia.

## ◆ Bergara-Pasaitarrak

Jubenil mutilak.  
Domeka. 12:15.  
Labegarieta kiroldegia.

## SASKIBALOIA

## ◆ Bolsos Bergara-Tabirako

Senior mutilak.  
Zapatua. 19:00.  
Labegarieta kiroldegia.

## ◆ Ganbara BKE-Añorga

Junior neskek.  
Zapatua. 17:30.  
Mariaren Lagundia.

## PILOTA

## ◆ Baque txapelketako finalerdiak

Martitzena. 19:00.  
Udal Pilotalekua.

## Peru Sagarna

## Lokatzetan murgildurik

**Peru Sagarna 16 urteko Lokatza elkarteko txirrindulariak ziklo-krosan debutatu du aurten go denboraldian. Errepietan garaipenak lortu ondoren ziklo-krosa uste baino gogorragoa dela adierazi digu.**

- Zelakoa izan da ziklo-krosako debuta?

- Uste baino gogorragoa izan da. Nirekin batera korritzen ari direnek 3 edo 4 urte daramatzate eta nire lehenengo urtea da eta egurra ematen didate.

- Zenbat lasterketan aritu zara?

- Bost bat lasterketan aritu naiz eta postu onena hamaseigarrena izan da. Azkena Igorren korritu nuen eta oso maila ona zegoen. Lasterketa Frantziako txapelkun irabazi zuen eta Estatu osotik etorritako txirrindulariak izan ziren. Gainera, jubenil mailan korritzen dusanez, txirrindulari asko urte bat zahragoak dira eta hori igarri egiten da, jakina.

- Zela prestatu duzu ziklo-kros denboraldia?

- Hasieran ez neukan idearik ere. Iñigo Igartuarengana jo nuen eta lehenengo lasterketaren aurretik teknika pixka bat erakutsi zidan. Gainera, Bergaran ez dago entrenatzeko toki askorik, dena erromaraz beteta baitago. Goiko Estazioko inguruetan ibili ginen pare bat egunetan eta gero San Martzial eta etxe inguruan ere erakutsi zizki-

dan entrenatzeko lekuak. Ibiltzeaz gain, bizikleta ahalik eta azkarren lepora igotzen ikasi behar da, bizikletarekin salto egiten ikasi behar da, berriro igo eta azkar sartu behar duzu hanka pedaletan, jaus ten zarenean berehala zutitu behar zara..

- Orduan, oso zaila da teknika hartzea?

- Bai, baina horretaz gain lasterketako zirkuntantziak ere kontutan hartu behar dira: aldapa bat igotzen ari zarenean atetik bat pasoa eskatzen zarata eta etortzen da, bizi-

kleta lepora igotzerakoan baten bat jotzen duzu edota irteeretan jende mordo gaude toki estu batean... Espero baino zailagoa da. Datorren urterako emaitza hobek izatea espero dut.

- Geratzen zaizkizun lasterketetan postu onik lortzeko itxaropenik baduzu?

- Aste honetan ikastolan oporrak hartzen ditut eta pare bat aste topera entrenatuta, ea 10 lehenengo artean bukatzen dudun lasterketaren batean.



Peru Sagarna, Ormaiztegi lasterketa jokatu ondoren.

**“Ziklo-krossa hasieran uste baino gogorragoa da”**



Argazkia: Ana Ilarduia

## Ospitalaren alde kantuan. 1973ko Gabonak

**G**abonen atarian gaudenean, orain dela 25 urteko abenduaren 24an ateratako argazkia ekarri dugu Erretiratu Zaharrera. Mariaren Lagundian ikasten zebiltzan 15, 16 eta 17 urte inguruko neskak, hiru mailatakoak, agertzen dira bertan, ospital zaharrerako dirua batzeko kantuan.

Honako hauek dira argazkian agertzen direnak:

**Atzean, pankartaren ondoan dauden zortzirik:** Ezezaguna, Kortabarria, Olga Balzategi, Mari Karmen Garitano, Kontxi Laskurain, Arantza Lizarralde, Arantza Murua eta Maria Teresa Uribe.

**Hauen aurrean zutik:** Elena Zabala, Amparo Etxezarreta, Maria Jesus Gisasola, Dulce Maria Rodriguez, Karmen Eraña, Maria Eugenia Inurrategi, Ana Ilarduia, ezezaguna, Mertxe Lasas, Itziar Arrue, Lurdes Gonzalez, Maribi Barrutia, Kontxi Mendia, Mariasun Loidi, Maika Mujika, Mari Kruz Luarizaristi, Josune Oregi, Margarita Lopez, Maria Eugenia Alberdi, Milagros Barrutia, Teresa Zabaljauregi, Anabel Zengotitabengoa eta Jone Olabarria.

**Bigarren lerroan makurtuta dauden zazpiak:** Lurdes Urrutia, Yolanda Egia, Begoña Alonso, Purita Arregi, Maria Jesus Lizarralde, Maria Clara Jauregi eta Maria Jesus Ramirez.

**Aurre-aurrean makurtuta dauden bederatziak:** Agurtzane Zangitu, Olga Albeniz, Maria Dolores Unamuno, Emilia Novoa, Pili Balzategi, Maria Jesus Martinez, Irene Zangitu, Marga Lopez eta Herminia Gomez.

Industria  
hornikuntzak



Industriaren  
alde

### MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxe: 79 47 89  
Santa Kruz, 25 ARETXABAETA. ☎ 77 11 75 • Faxe: 77 13 08



## zumelaga

### JATETXEA

**ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!**

San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

**Eskatu lekua**  
**Errege**  
**bezperarako!**  
Abenduaren 24tik  
urtarrilaren 2ra  
itxita.



GASTON Y DANIELA

Preki berria Kruz Gallastegi 3an, Bergaran. Tf. 76 07 37.

Tapizeriak  
Moketak  
Alfonbrak



*Eta orain*

azteendako, umeendako eta ume jaioberriendako altzariak eta dekorazioa



## LOGELETAN


espezializatutako merkatal zentrua

47 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Araba Etorbidea, 5  
(ESKATU Pabiloia,  
San Andres auzoa)  
Tfnoa eta Faxa: 79 41 82  
ARRASATE

Larunbat  
arratsaldeetan  
zabalik!!



Dena ETXEMOBELen. Batetik, kalitate eta diseinu handieneko logelak,  
garantia osoarekin. Bestetik, logela merkeen artean merkeenak.

## BENETAN HARRIGARRIA!!